

TOKIKOM

2014ko apirila | 136. zenbakia

ai kor!

erriko aldizkaria



Maiatzaren Lehena
Erabaki, kalera!

JOSE LUIS KORTA MASKARADA ZAMUDION DERIOKO JAIAK APRENDE TEA





sustatzailea
BEKOETXEBARRI S.L.

41 VPO-BOE ETXEBIZITZA

TRASTELEKU ETA GARAJEAREKIN

158.002€ + bez -tik hasita

INFORMAZIO GEHIAGO:

TALLER 3. ZAMUDIO

94.657.93.73



A PARTZELA

3 logelako 20 etxebizitza eta
2 logelako etxebizitza egokitu bat.

C3 PARTZELA

3 logelako 19 etxebizitza eta
2 logelako etxebizitza egokitu bat.

VPO BOE 41

etxebizitza
Zamudion



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Unai Ugalde, Imanol Alvarez, Gotzone Garcia, Gaizka Peñafiel, Derioko Liluraturia taldea, Aner Mentxaka, Monika Nadal, Txerra Rodriguez, Mikel, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKORI! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Salturuetak

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



**BFA
DFB** Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



**Txorierriko
Mankomunitatea**

diruz lagundutako aldizkaria



12 José Luis Korta



14 Maskarada, Zamudion



26 Derioko jaiak

- 4** Eritxia
- 6** Laburrak eta albisteak
- 12** Gurean izan da... José Luis Korta
- 14** Maskarada, Zamudion
- 16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
- 18** Maiatzaren Lehena
- 24** Gure esku dago ekimena
- 26** Derioko jaiak
- 30** Elkartek... AprendeTEA
- 32** Berbalagunen txokoa
- 34** Teknologia
- 35** Aikorrizketan... Euskalduntzen metodoak
- 36** Sukaldaritza
- 37** Denborapasa
- 38** Agenda

Alaia fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Taller, 5
48170 Zamudio
94 452 01 25

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69



IMANOL ALVAREZ
(Filosofia irakaslea)

Kristorena prestatu zidaten lagunek atzerrira joan aurretik. Asteburua Donostian, lagun minez inguratuta. Baina Espainiako kamiseta domekara arte janzte, ihes egiteagatik ordaindu beharreko zigorra!

Etiket atera ginen, hirugarren tragoa taberna batean hartzeko asmoz, baina ezin. Gazte pare batek taberna uzteko gonbitea egin zidan, eurek lagunduko zidatela bestela. Nire lagunak, txantxa bat besterik ez zela; hala ere, txantxak ez zien graziarik egiten, antza. Kanpora irten

Garai berrien beharra

nintzen, baina eztabaidak jarraitu zuen nire lagunak, aurreko bien eta hurbildutako beste biren artean. Etxera joatea erabaki genuen arte.

Liskarra gau horretako eta hurrengo egunetako mintzagaia izan zen. Tabernako batek esandakoari bueltaka ibili nintzen: "Atzerritarra edo espainiarra bazina, tira, baina hemengoa izanik, badakizu probokazio bat dela".

Gure herrian euskaldunak, espainiarrak eta neurri ezberdinetan bata eta beste sentitzen diren banakoak bizi dira. Bere etorkizuna erabakitze eskubide osoa izan beharko luke herri honek, baina gutariko bakoitzak bere sentipenak zeintzuk diren askatasun osoz azaleratzeko eskubidea bermatzea behar-beharrezkoa da bide horretan. Eskubideen urraketez betetako iraganaldi bat aldarrikatzen dute batzuek zein besteek, arrazoizko aldarrikapenak direla esatera ausartuko nintzateke. Borreroak milaka aurpegi dituen heinean, baditu egiak beste hainbeste.

Atzerritar batek kamiseta hori eramatea onartzeko gai gara, espainiar batek eramatea ulertzen dugu, baina ez euskaldun batek eramatea. Gauza batean ados nago gazte harekin: batzuek probokazio bat bezala hartuko zutela. Txantxa bat zen, baina ez du zertan izan. "Abertzale izan ezker gaur, gauden denok anai", dio kantak, baina atzokoak urrun. Iraganaldiko etsaiak mahai berdinean esertzeko ordua da.

Holakoetan zaila da esaten, klase politikoaren eta gizartearen artean, zeinek bultzatu behar duen zein. Baina askori gustatu edo ez, geu gara euskal herritarrak, geu guztiok. Horregatik ez genituzke norbere helburuak abiapuntutzat hartu behar, ez batzuek, ez besteek. Taberna hartatik aldentzen ari ginela beste koadrilako bi eztabaidatzen ari ziren gertatutakoaz. Ez da nahikoa, baina, beharbada, momentu honetan behar duguna. Apurka-apurka.

Amak oraindik gaztea naizela esaten didan arren, badira urte batzuk lan-merkatuan murgildu nintzela, eta, beraz, lanerako jarrera askotarikoak miretsi eta sufritu ditudala. Horien artean bat nabarmen-tzekotan, energiaren sektoreko enpresa potolo ezagun batean azpikontratatuta eman nituen urteetan ikusi nuena da, hasieran txundituta utzi ninduen.

Izan ere, orduantxe jabetu nintzen ardurak traslatatzea izan daitekeela, kos-tuak jaitea baino gehiago, nork bere baliabideen bitartez eman ditzakeen zerbitzuak "esternalizatzeko" ezkutuko arrazoietako bat. Horrela, gauzak txarto ateratzen badira, badaukazu nori leporatu

Nork bere lan-ardura, galduz doan kultura



UNAI UGALDE
(Ingeniaria)

errua, eta maila batean erosoago bizi zaitezke; bai, behintzat, nahikoa diru badaukazu ardurak traslatatze hori ordaintzeko. Ondorioz, ez da lan egiten gauzak ondo atera daitezen, txarto ateratzekotan egurra beste norbaitek har dezan baino. Eta ondo ateratzekotan, gehienetan horrela gertatzen zen-eta, dominak paparrera eta denok pozik.

Unibertsitateko ikasleak gurasoari: "berriz suspenditu dut"; erantzuna: "baina akademiara bidali zaitugu, eta ez da bate-re merkea izan; zelan da posible?".

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntz:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

ERREKA
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Partida honetan, euskara irabazle



Lau urte bete dira TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarten Federazioak eta Itzarri aholkularitza enpresak Txorierriko Kirola Oinarritik Euskaraz egitasmoa jarri zutene-tik martxan. Egitasmoak futbol entrena-tzaileak euskaraz trebatzea du helburu, eta lan horretan, Txorierriko Zerbitzuen Man-komunitatearen eta Bizkaiko Foru Aldun-diaren laguntza ere eduki dute. Nolanahi ere, proiektua beste arlo batzuetara zabal-du da, eta aurtengo Txorierriko saskibaloit tal-

deek ere hartu dute parte bertan; hauek hain zuzen ere: Sondikako Gorondagane, Lauro eta Derioko Saskibaloit Taldea. Futbol arloan talde hauek aritu dira: Sondikako Gorondagane, Sondika Kirol Elkartea eta Zamudioko Kirol Elkartea.

Ohikoa denez, apirilean ekitaldi bat antolatu da Politeknika Ikastegia Txorie-rin, ikasturte honetan egitasmoan parte hartu duten entrenatzaileei eta futbol elkarteei zein eskolei esker ona adierazte-ko. Hala, partidatxoak jokatu ziren eskolan aritu diren taldeen artean eta partida horietan irabazle bakarra egon zen: euska-ra. Ostean, proiektua aurrera ateratzen la-gundu duten elkarteei, entrenatzaileei eta banakoei eman zieten sari bana.

Bestalde, aipatu beharra dago ekital-diarekin futbol eta saskibaloit arloan ezagu-nak diren kirolariak egin zutela bat. Hala nola Iraia Iturregi eta Borja Ekiza, Athle-ticen jokalaria; Aitziber Juaristi "Tzibi", Athleticeko emakumezkoen taldeko jokala-ri ohia; eta Roger Grimau, Bilbao Basket tal-deko jokalaria.



RPS: 18470

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18



TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torreleragotit ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com



Garmendia
ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

HORTZ KLINIKA



Idoia Zubieta

Osasun-zentrua & Hortz-zentrua
HORTZ-PLANTAEK - ORTODONTZIA ETETIKOA
HABERAK ZEIN HELURAK

Dr. Arizosa kalea, 11 - 1. era. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urtze plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

Arte garaikidea

Arte garaikideko hitzaldi-taile-rrak antolatuta dira Derion, maiatze-rako eta ekainerako. Kultur Birikan emango dira maiatzaren 26an eta ekainaren 2an eta 9an. Saioak arratsaldeko 5etan hasiko dira. Era berean, irteera egingo da maiatzaren 10ean Guggenheim museora. Irteera arratsaldeko 5:30ean izango da. Izena ematea maiatzaren 20ra arte egin daiteke Kultur Birikan. Leku mugatua dago.

Balkoi apainduen lehiaketa

Lehiaketa hirugarren aldiz antolatuta dute Sondikan. Eta, azaldu duten moduan helburu hau du: "balkoiak apaintzea zein mesedegarria den azpimarratzea, balkoiak herri baten elementu estetiko garrantzitsuak direlako, eta euren edertasuna sustatu eta berreskuratu nahi dugulako".

Izena ematea maiatzaren 6ra arte egin daiteke liburutegian. Bertan eskuratu ahal izango dira lehiaketaren oinarriak, non lehiaketan parte hartzeko informazioa eta sariak lortzeko bete beharreko baldintzak azaltzen diren. Landareak Udalak emango ditu maiatzaren 10ean. Maiatzaren 5etik 29ra, Erakusketa Aretoan.

Bestalde, Zamudion ere balkoi apainduen lehiaketa eta txori kantarien lehiaketa egingo dituzte. Horiek maiatzaren 31n izango dira.

Martxa solidarioa



a: Urko Real de Asua

Ortzi kirol taldeak martxa solidarioa egingo du bederatzigarren aldiz Erandiogoikoan, Erandioko Udaren eta Atxaspe mendi taldearen laguntzarekin. Izena ematea 7:15etik 7:55era egin beharko da, eta, derrigorrezkoa ez bada ere, nahi due-

nak kilo bat janari ez galkor eraman ahal-ko du inskripzio moduan. Ostean, omenaldia egingo diote Laurentziri. Azaldu diguten moduan, Laurentzi martxa solidarioan musu truk parte hartzen zuen herriko txistulari bat zen, umeekin kalejir-eran ateratzen zena. Laurentzi orain dela hilabete gutxi hil da, eta martxaren antolatzaileek argazki bat eta txistua eta danbolina ipiniko dituzte plazan bere ome-nez.

Helduei zuzendutako mendi martxa 8:00etan hasiko da eta 26,7 kilometro edukiko ditu; umeentzako mendi martxa, 10:00etan, eta 12,35 kilometro izango ditu. Aldi berean, azoka alternatibo bat egongo da, eta, besteak beste, bertan jatekoak, arropa eta zeramika-lanak ipi-ko dira salgai. Horrezaz gainera, umeen-tzako puzgarriak egongo dira, kick bo-xing erakustaldia, kirol taldeak egindako espedizioen eta aurreko urteetako mar-txen dokumentala eta iazko martxaren argazkiak. Erandioko abesbatzak emanal-dia eskainiko du 12:30ean, eta indabak dastatzeko aukera egongo da. Martxa solidarioari 14.30ean emango zaio amaie-ra.

Ekitaldian batzen den janaria, arropa eta abarrekoak Europako herri behartsu batera bidaliko da aurretik. Izan ere, hori da Erandiogoikoko martxa solidarioaren helburua. Hala, aurreko urteetan batuta-koa munduko zenbait herritar bidali da, elkarrekin egindako espedizioen bidez, edo gobernu kanpoko erakundeen bi-dez.

Tel./fax: 94 452 06 64
Torrelarragoli ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante
JANS JATEKES

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

LEANDRO
LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)

Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin
Pilo bat daukazu aukeratzeko

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitez zure eskaera egiteko

9,32€
-tik hasita
BEZ barne



Gure Señeak elkartearen aldeko diru-bilketa

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak Osasunaren Astea antolatu zuen apirilean eta, besteak beste, lasterketa-martxa bat egin zen Deriotik Zamudio-raino. Ekitaldiaren haritik kamisetak ipini ziren salgai eta batutako dirua Gure Señeak Derioko elkarteari eman zioten. Orotara 1.600 euro batu ziren. Elkartea pozik azaldu da jasotako laguntzarekin. "Diruaz aparte, publizitate apur bat ere lortu dugu. Izan ere, guretzat dirua premiazkoa da, baina baditugu beste helburu batzuk ere, hala nola gure umeen integrazioa arlo guztietan, elkartasuna balio moduan hedatzea edo boluntarioen pa-

pera". Dirua batzea gero eta zailagoa dela esan digute. "Lan handia egin behar dugu, familiek dituzten premiak betetzeko, gauza berriak asmatu". Nolanahi ere, derioztarrek elkartearekiko adierazi duten jarrera ona azpimarratu dute. "Derio herriarekin zor gaude hasieratik".

Gure Señeak irabazteko asmorik gabeko elkartea da, gaixotasun arraroak edo ezgaitasun larriak dituzten umeen familiei laguntza ematea helburu duena. Era berean, ume horien bizi-kalitatea hobetzeko egiten du lan, horien eskubi-deak errespetatu daitezkeen eta erabateko berdintasuna lor dezaten.

Kultur txartela

B motako kultur txartelak zuzeneko produktuen alde egitea du helburu. Txartelak 28 euroko prezioa du, baina erosten duenak 40 euroko balioa duen bonoa lortuko du. Sondikako Kultur Etxeak (SKE) aukera ematen du kultur txartela bertan erabiltzeko. Hala, txartela zortzi sarreraz osatutako bono baten truke aldatu ahalko da. Informazio gehiago: SKE eta udal-etxean.

Txakolinaren Eguna

Giro ederra Larrabetzuko Txakolinaren Egunean aurrean egon dena. Hara jendetza handia hurbildu zen Txorierriko txakolina eta nekazaritzako produktuak dastatu eta erostera. Gainera, eguraldi ederra egon zen. Azokan Larrabetzuko eta Lezamako zortzi txakolingilek hartu zuten parte eta gainontzeko salmenta-postuetan, besteak beste, hauek izan ziren: gazta, ortuariak, kontserbak, ogia eta gozokiak, eta artisau-lanak



a: larrabetzutik.org

bai euskara!

Bai Euskara! Zuztagiria, gure euskararen erabilera erabakitzen duen eragilea

zuztagiaren ikurra bai euskara.org

lurrats biziak

Twitter: @euskara Facebook: euskarazuztagia Web: www.euskara.org

ASADOR ARAMENDI

EZKONTZAK BATAIOAK BANKETEA JAUNARTZEAK

Arteaga auzoa, 119
Tlfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

TXORIERRI MARMOLDEGIA

Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 00 06

Ibilaldi neurtua

Untza Derioko mendi taldeak ibilaldi neurtua antolatu du maiatzaren 11rako. Ibilaldia 28. aldiz egingo dute aurten. Helduak goizeko 8etan aterako dira Herriko plazatik; eta umeak, goizeko 9etan. Izena ematea ere bertan egingo da. Nagusientzako ibilbideak 15,5 kilometro edukiko ditu; eta umeentzako ibilbideak, zazpi kilometro. Ibilbideak pintura gorriaz eta zintez markatuko da. Parte-hartzaileek kontrol guztietatik pasatu beharko dute derrigorrean eta bigarrenen anoa-postu bat ipiniko da. Sariak arratsaldeko 5:30ean banatuko dira Udaletxeko plazan; euria egingo balu, kiroldegian. Informazio gehiago: www.untzamendi.biz.

IGO kanpaina, Larrabetzun

Hango Udalak eta Arrekikili eus-kara elkarteak "Irakurri, gozatu eta oparitu" kanpaina jarri dute martxan. Kanpainak ekainaren 30era arte iraungo du eta helburu hauek ditu: irakurketa sustatzea eta euskararen erabilera gozagarria bultzatzea. Parte-hartzaileek euskarazko liburu bat hartu beharko dute liburutegitik, eta hori irakurri, noski. Liburua itzultzen dutenean, irakurle-fitxa bat bete beharko dute eta horren ostean, liburuzainak % 25eko deskontua duen txartel bat emango die. Deskontua Derioko liburu-dendan edo Elkar liburu-dendan erabili ahaliko da, euskarazko beste liburu bat erosteko.

Emaizta ezin hobeak, Oropesako Openean



Martxoaren azken asteburuan Taekwondo XIV. Opena egin zen Oropesan. Bertan 1.000 kirolarik baino gehiagok hartu zuten parte eta Doyan Derioko klubeko taekwondolariak izan ziren haien artean. Orotara 30 neska-mutil joan ziren Txorieritik Valentziara. Zapatuan borrokaldiak egin ziren. "Nazio mailako txapel-dunak, dominadunak eta maila handiko kirolariak aritu ziren borrokaldietan eta egun aparta izan zen", kontatu digute klubekoek. "Guk ere emaitza onak lortu ge-

nituen: zilarrezko domina bi eta brontzezko sei domina". Domekan teknikaren txanda izan zen, eta emaitzak, bikainak beste behin. "Kerman Arranzek urrezko domina lortu zuen Senior 1 kategorian; eta Erlantz Atutxak, brontzezkoa. Haizea Arranzek ere urrezko domina irabazi zuen emakumezkoen kadete nagusi kategorian; eta Beñat Llonak, brontzezkoa gizonezkoen kadete nagusi kategorian. Sailkapen horiei esker 16 puntu batu genituen eta lehenengo postua eskuratu genuen taldeka".

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Basalbeitiko Txakolina
Denominazio de Origen

Goldotze erizola, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

TXORIERRI Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

kurragadik gertu

ABOKUARIATZA - TASARIOA
ALOKATZEAK - ENKALDAITZEAK
KALIFRONKETAK
SEGURORIKILAREN AGENTZIA

**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak

ANKAPALU

LARRABETZU
☎ 94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA (BIZKAIA)

HERRITARREN
ESKUBIDEEI

ehbildu
herrikerabaki

BAI



TROIKAREN EUROPARI

EZ



Ikurrinaren aldeko Eguna

Maiatzaren 3an egingo da Larrabetzun. Goizeko 11etan herriko plazan batu eta Bizkargi mendira igoko dira, ikurrinak daramatzatela. Ikurrinak salgai ipiniko dira eta umeentzako jolasak egongo dira, Kukubel taldearen eskutik. Eguerdiko ordu batean udalbatza izango da eta han ikurrinaren aldeko, eta espainiar banderaren inposizioaren aurkako adierazpena irakurriko da. Era berean, plaka bat jarriko da udaltxeko horman, eta, ostean, dantza eskolakoek egingo dute saioa. Xabier Amuriza eta Jon Maia bertsolariak "Balkotik balkoira bertsotan" ekitaldian hartuko dute parte. Horri eguerdiko 1:45ean emango zaio hasiera. Eguerdiko 2:30ean kopaua eskainiko da. Arratsaldeko 17:30era-ko futbol-partida antolatu da, eta arratsaldeko 7:30ean kalejiran aterako da.

Garagardogileak

Altzora Sondikako euskara elkarteak kideek ikastaro bat antolatu du etxean garagardoa egiten ikasteko. Hori maiatzaren 10ean eta 24an egingo dute Sondikako Kultur Areta lloan, goizeko 11etan. Euskara elkarteak bazkideek eta berbalagunek hiru euro ordaindu beharko dute; eta gainontzekoek, bost euro. Aukera aparta da zure garagardoa egin, etxera eraman eta lagunekin dastatzeko.



Plaka frankistak eraikinetatik kendu dituzte Txorierriko gazteek

Txorierriko gazte eragileek bizikletaz egiteko martxa bat antolatu zuten apirilean. Martxa horretan 40 gazte inguruk hartu zuten parte, eta herriz herri ibili ziren eraikin zaharretan dauden Francoren garaiko plakak kentzen. Antolatzailerik oso balorazio ona egin dute ekintzak eduki duen arrakastari buruz: "Gazte-kopuru galanta batu zen ekitaldian, eskailera eta guzti, eta ia 40 plaka kendu genituen. Aho bete hortz utzi gintuen herriko taldeek mugitu zuten jendea!".

Azaldu diguten moduan, zapatuan egin zuten ekintza orain dela hiru hilabete sortu zen lantaldearen emaitza da. Txorierriko ERNAIk -Zamudioko ERNAIk eta Larrabetzuko ERNAIk osatzen dutena-

Txorierriko gazte eragileei deitu zien eta mahai baten inguruan elkarrekin hauek batu ziren: sortu berri den Tarratada Sondikako Gazte Asanblada, Santzoka Derioko taldea, Inisutue Zamudioko Gazte Asanblada, Hori Bai Larrabetzuko gaztetxea, Txorierriko IA eta Txorierriko ERNAI. "Mahai horretatik sortu zen martxa egiteko ideia. Era berean, helburua frankismoko plakak kentzea zela adostu genuen, eta martxa bizikletaz egingo genuela". Plakak kentzeaz gainera, zenbait ekitaldi egin ziren herri bakoitzean, hala nola jolasak, bideo grabaketak, argazkiak eta denbora-pasak. Hori Bai Larrabetzuko gaztetxean afaria hartu zuten, eta herriko musika talde batek kontzertua eskaini zuen bertan.

RUBÉN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lefendakari Letziola plaza, 3
48170 Zamudio
94 452 14 49

PATXI
KOOP

PATXI KOOPERAKASIA ELKARTEA
Herriko jaiak - Etxeare 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 522 587 - info@paxi.coop - www.paxi.coop

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - http://www.rpmmayoristas.com

Magalarte Txakolina

Arretxabaletan ekoizten eta botatzen da

75 cl. 10,75% vol.

Bizkaiko Txakolina Denominación de Origen

Leite - 1-05

Politeknika Txorierri eta Neiker-Tecnalia institutuaren arteko lankidetzaren hitzarmena



Akordioak nekazaritza arloari lotutako ezagutzak eta berrikuntza teknologikoa partekatzea du helburu

Hitzarmena arlo hauetan bietan sinatu dute: enpresetara zuzendutako lanbide-heziketa, eta berrikuntza teknologikoa eta didaktikoaren garapena. Hitzarmenari esker, lankidetzaren esparru iraunkor bat sortu da aipatutako arloetan, eta Politeknika Txorierri bihurtu da Neiker-Tecnalia institutuaren zentro laguntzaile. Neiker-Tecnalia Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea da.

“Erakunde biok aritzen garen esparruak dira eta elkarrekin egingo dugu lan, nekazaritza, ingurumen eta baliabide na-

turalen sektoreetara zuzendutako prestakuntza sortzeko”, azaldu du Juan Ángel San Vicente Politeknika Ikastegia Txorierriko zuzendariak. “Horrezaz gainera, berrikuntza teknologikoa eta didaktikoko proiektuak garatuko ditugu eremu horietan”.

Hala, ikastetxeak lanbide-heziketako eskaintza bat garatuko du goi mailako heziketa ziklo hauetan: Automatizazioa eta Robotika Industrialak, eta Ingurumen Hezikuntza eta Kontrola. Era berean, hitzarmenak praktikak egitea ahalbidetuko

du Txorierriko ikasleei, aipatutako arloetan enplegu-poltsa bat osatuko dutenak. Bestalde, Neiker-Tecnalia institutuko langileek enplegurako prestakuntza jaso ahal izango dute, baita beste zerbitzu interesgarri batzuei buruzko prestakuntza ere, hala nola ingurumenaren kudeaketari buruzkoa, laneko arriskuen prebentziora buruzkoa, kalitateari buruzkoa...

Neiker-Tecnalia erakunde publikoak 2000. urtetik hona trebatzen ditu Politeknika Ikastegia Txorierriko ikasleak, nekazaritza, ingurumen eta baliabide naturalen sektoreetan, eta berrikuntza teknologikoaren proiektuetan. Horren haritik, ikasleak hartzen dituzten enpresek aintzat hartzen dute horiek erakundean jasotako prestakuntza. Hitzarmenak nekazaritza arloari lotutako ezagutzak eta berrikuntza teknologikoa partekatzea du helburu, erakunde biei onurak ekarriko dizkiena.

Hemen prestakuntzak lantzen dituzten berarekin

POLITEKNIKA IKASTEGIA TXORIERRI S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lanbide Heziketa eta Ingurumen Hezikuntzarako Ikastetxea

Unizaga Ikala Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEPIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako ikastetxea

ATEAK ZABALTZEKO EGUNAK
Maiatzaren 6an eta 27an (18.30etatik aurrera)

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOAK

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

- FABRIKAZIO MEKANIKOA**
 - Mekanizazio teknika
 - Endi mailako zikloa (2 ordu)
 - Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknika
 - Goi-mailako zikloa (2 ordu)
 - Produzioaren Programazioa goi-mailako teknika
 - Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- SEGURTASUNA ETA INGURUMENA**
 - Ingurumen-Heziketa eta Kontrola goi-mailako teknika
 - Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA**
 - Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknika
 - Goi-mailako zikloa (2 ordu)
 - Telekomunikazio- eta Informatika-Sistemetako goi-mailako teknika
 - Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- MERKATARITZA ETA MARKETINA**
 - Salmenten kudeaketako eta Merkataritza Arloetako goi-mailako teknika
 - Goi-mailako zikloa (2 ordu)

“Nire garaipenik onena, hainbeste urtean lehenengo postuetan ibili izana”

JOSE LUIS KORTA | arraun entrenatzailea

Hurbila, berritsua eta sutsua. Telebistan ikusten dugun bezalakoa da Jose Luis Korta (Orio, 1949). Gipuzkoarrak ibilbide oparoa du arraunketan, eta azken bolada honetan telebista-saio bati esker askoz ezagunagoa da. Korta Deriora etorri da, kirola eta euskarari buruz hitz egitera.

t: Gaizka Eguzkitza / a: EITB

Derion euskara eta kirola izan zenituen mintzagai. Nolako garrantzia izan dute horiek biek zeure bizitzan?

Biak izan dira garrantzitsuak. Euskara beti egon da nire bizitzan. Txikitan, Orion, euskaraz egiten genuen, nahiz eta eskolako maisuek horrelakorik nahi ez izan. 1976an Kaiku klubera joan nintzen, Sestao aldera, eta bertan euskara gutxiago egiten zen. Gaur egun, ordea, egoera erabat ezberdina da eta askoz gehiago egiten da euskaraz, eta hori oso polita da. Era berean, itsasaldean jaio nintzen

eta arraunean eman dut bizitza osoa. Ez dut futbolariak beste diru irabazi, baina tira, familia mantentzeko gauza izan naiz.

Bizitza osoa eman duzu arraunketan: hainbeste klub, bandera... Zein izan da zure lorpenik handiena? Eta etsipenik handiena?

Ezin dizut garaipen bakar bat aipatu. Sakrifizio handiak eta lan ikaragarria egin behar izan ditut. Nire garaipenik onena hainbeste urtean arraunketan lehenengo postuetan ibili izana da. Horregatik zorion handikoa izan naiz. Era berean, ez dut zorte handirik izan, txapelketa asko eta asko zorte txarrengatik ihes egin zaizkidalako. Esate baterako, azken urteotan Kaikuk irabazi dituenak baino Kontxako bandera gehiago irabazi behar izan ditu, eta horrek amorrua ematen dit. Baina tira, gertatu zaizkidan gauza onekin geldituko naiz.

“Azken urteotan Kaikuk irabazi dituenak baino Kontxako bandera gehiago irabazi behar izan ditu”

Estropadez eta banderez gainera, Jose Luis Korta beste abentura batean ibili da murgilduta azken zortzi urteotan, EITB-ko *El conquistador del fin del mundo* saioan, hain zuzen ere. Erronka bota zioten eta, noski, oriotarrak onartu egin zuen. “Oporretan ezohiko lekuetara joateko gogoia nuen, bizirau-pen-saioak egiteko eta bertako jendea ezagutzeko: oihana, basamortua... Telebistarena sortu zen eta ez nuen birritan pentsatu”.

Kortak aitortu digun moduan, saioa izugarri gogorra da; are gehiago,



Ibilbidea

Klubak

- Orio (1968-1972, 1991-1997).
- Lasarte-Michelin (1973-1975).
- Kaiku (1976-1987, 2008-...).
- Zierbena (1988-1990).
- Castro Urdiales (1998-2007).

Palmaresa

- 16 Kontxako Bandera.
- 10 Espainiako Traineru Txapelketa
- Espainiako zortziko txapelketa 1.
- 10 Espainiako skiff txapelketa.

1980ean Joko Olinpikoetan ibili zinen, Moskun. Zelango esperientzia izan zen?

Oso ona. Gaztetan Estatuko txapelduna izan nintzen skiff kategorian. Espainiako federazioak aukeratu ohi ninduen Olinpiadetara eta Munduko txapelketetara joateko, baina ni ezin nintzen joan. Izan ere, horrek ez zidan jaten ematen; arraunketak, bai, ordea. Beraz, estropadak aukeratzeko nituen. Hala ere, 1980eko Olinpiadetara joateko aukera izan nuen. Primeran pasatu genuen eta Mosku ezagutu genuen. Tamalez, zazpigarren postuan bukatu genuen eta ezin izan nuen dominarik lortu.

Laster hasiko da arraunketaren denboraldia. Zelan ikusten duzu?

Zaila da... laz Kaikukoa tripulaziorik onena izan zen Ligan, eta gero laugarren postuan bukatu genuen Kontxan. Aurten

“Dopina egon badago, arraunketan eta kirol guztietan, eta inork ez du ezer egiten”

talde berria dugu eta ez dakit zelan ibiliko garen.

Zigortuta zaude, dopina arraunketan dagoela adierazi izanagatik. Hori kontuan izanda, zelan biziko duzu denboraldia?

Aurten ez daukat fitxarik, baina nire lana berdin-berdin jarraituko dut egiten. ACT Liga negozio handia da, baina galdera hau da: zenbat diru bideratzen dute klubetara? Batere ez. Errazena niri zigorra jartzea da. Eurek pozik jarraitzen dute, egoerak berdin-berdin jarraitzen badu ere. Ez dute ezer ere egiten dopinaren kontra borrokatzeko. Eta dopina egon badago, arraunketan eta kirol guztietan eta inork ez du ezer egiten. Eta, agian, gutxi dira dopina bultzatzen dutenak, baina horrek kaltea ekartzen dio kirolari, eta batez ere arraunlari, pozoia ematen dietelako. Zergatik kobratzen dute dirutza klubetako medikuek? Ura emateagatik ez da izango... Hori ez da kirola, eta hori kirola bada, nik ez dut horrekin zerikusirik izan nahi. Borroka honetan bakarrik sentitzen naiz, baina jarraituko dut. Eta arraunlari bakar bat salbatzen badut, nahiko, pozik ibiliko naiz.

Munduko konkistatzailea

“ematen duen baino gogorragoa”. “Aurten Iguazu ur-jauzietan ibili gara. Lekua zoragarria da, baina oporretan joateko (kar, kar). Nik izugarri sufritu dut, janaririk ez zegoelako. Egun batzuetan zorabiatuta ibili naiz”. Agian horregatik ez du saioan berriro parte-hartzeko asmorik. “Gaur egun 65 urte ditut eta nire garaia pasatu egin da. Orain, gazteen txanda da”.

Baina benetakoa da bertan gertatzen dena? Arraunlari ohiak argi eta garbi eran-

tzun digu. “Bai horixe! Batzuetan kontziente gara kamerez inguratuta gaudela, baina beste batzuetan, ez. Batzuetan, lasai gaudenean, txorakeriak egiten ditugu kameren aurrean. Juanito Oiarzabal eta biok itsusiaren eta gaiztoaren paperak jokatzen ditugu. Ez dakit nor den nor (kar, kar)... Gu ez gara inoiz isiltzen eta azkar-azkar haserretzen gara, eta horretarako gaude hor, horrek saltzen duelako”.

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berriak
Logopedia
Podologia
Kinesioterapia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txoriñen etorbidea, 9 - Loria | Antzaga eraikina | 48180 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

ZB
ESTETIKA-ZENTROA

Anguleri, 2 - LARRABETZU
94 455 81 44
www.centroesteticoZB.com

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 Ionia - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

Consulting
Sondika S.L.

Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 475 746

Milano, 6 beheko
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Faxa: 94 453 60 27

NARATEGIA • URDAITEGIA
VICTOR
ARTISAU-ELABORAZIOA

Okela ekoizten dugu:
odolostak, txorizoa,
bislarra, solomak...
Plater aurrekoiztatu

Goiri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

Zuberoa Zamudion

Lagatzu euskera alkarteak Maskarada bat antolatu dau maiatzaren 10erako, Gaztedi Santutxuko dantza taldearen laguntzagaz

a: Gotzone Garcia

Maskaradea Zuberoan egiten dan jar-duera kultural bat da, eta haren bitartez herrietako gazteek alkar ezagutzeko aukera ezinhobea izaten dabe. Urte bako-txean herri bateko gazteak arduratzen dira Maskaradea antolatzeaz, eta urtarrile-tik maiatzera arte emonaldiak egiten dabez gonbidatzen dabezan herrietan. Emonaldi guztiak ez dira bardinak izaten; kontakizunak aldatzen dabez dagozan herrira egokituz. Zerbait barregarria edo kritikagarria gertatu bada, horren barri be emoten dabe, bertsotan zein euren esanetan. Kontakizun horreei predikuak esaten jake. Iñaki Astorkiza Lagatzuko kidea eta Amaia Angulo Gaztedi dantzari taldeko dantzari ohia holan hasi dira maskarada bat zer dan azaltzen.

"Maskaradak zati bi dauz: goizean barrikadak egiten dira; eta arratsaldean, ofizioak". Herrian gura beste barrikada ipinten dira eta herritarrek han egiten deustee harrerea kanpotik datozanei. Horretarako, kantzak, dantzak, jolasak... erabiltzen dabez. Kanpotarrek dantzak bertsoak egiten dabez. Eta halan, herrian dagozan barrikada guztietan. "Kanpotarrek barrikada guztiak gaingitu behar dabez, plaza nagusira ailegaten diran arte. Plazan herritarrek daukiez zain, eta dantza egiten dabe (jauziak) guztiek batera. Plaza hori arratsaldeko saioa egingo dan lekua izaten da". Barrikada bakotxean jan-edana eskaintzen dabe bertokoek.

Gorriak eta baltzak

Arratsaldean ofizioen txandea da. Talde bi dagoz: gorriak eta baltzak. Gorriak dantzari onak dira, trebeak eta ondo jantziak (Aitzindariak, Jauna eta Anderia, Laboraria eta Laborarisa, Marexalak, Kherestuak, Kukuileroak...). Baltzak, osterak, lohiak, zaratatsuak... (Zorrotzak, Buhameak, Kauterak, Medikua...). Bakotzak saio bat egi-



ten dau bere ofizioaren gainean eta antzeppen horretan kantzak, dantzak, bertsoak... buztartzen dabez. Herriko pasadizuak edo predikuak ijitoen erregea dan Buhame Jaunak eta Kabana Handiak, kauteren nagusiak, kontetan dabez.

Zamudion, Lagatzu euskera alkarteko kideek konbidatu dabez Gaztedi taldeko dantzariak Maskaradea egitera. "Zuberoan egiten dan moduan egingo dogu. Ezbardintasun bakarra hizkuntza izango da. Han zuberera erabilten dabe, eta guk bizkaierera erabiliko dogu. Kherestuek bearnesez be egiten dabe Zuberoan; Zamudion galegoz ibiliko dira Gaztediko kherestuak".

Azaldutakoaren arabera, eta ale hau itxi ondoren aldaketarik ez badago, bost barrikada egongo dira: lehenengoa, Leizaola Plazan; bigarrena, Pago kalean; hirugarrena, Gorbeia kalean; laugarrena, Agirre Plazan, eta azkena (Plaza Hartzea) arratsaldeko ekitaldia egingo dan lekuan, Eskola Zaharretako patioan.

Esan dogunez, arratsaldeko ekitaldia Eskola Zaharreko patioan egingo da aterri bada; edo frontoian, euria izan ezkeru. "Barrikadetan Bertoko, Hiru bat dantza

taldea, Zamudioko Kamara Korala eta Lagatzuko kideak egongo dira. Barrikaden ostean eta arratsaldean herriko jendeak parte hartu ahal izaten dau dantza batzuetan. Horretarako Hiru bat dantza taldeak entseguak antolatu ditu herri-tarrantzat.

modu egokia zala Iparraldean gurera ekarteko".

Gaztedi dantzari taldeak orain dala 20 urte egin eban lehenengo aldiz Maskaradea Santutxun, eta joan dan otsailean barriro antolatu dabe. "Oso arrakastatsua izan zan; plaza jentzez ganezka egon zan.



Goizeko saioa 12:00etan-edo hasiko da eta arratsaldeko saioa 17:00ak inguruan.

Iparraldeagaz lotura

Urtero moduan, Lagatzuk Euskal Astea antolatu dau maiatzaren 8tik 11ra bitartean eta Maskaradea haren barruan egingo dabe, hilaren 10ean, hain zuzen be. "Alkartea sortu genduanetik helburutzat hartu genduan Iparraldeagaz dogun loturea estutzea. Eta urtero urtero egiten dogu bidaia bat hara. Heletara joaten gara, eta handik Maskaradea ikustera edo Nafartarren Eguna ospatzera Baigorriara.

Gaztedi dantzari taldekoek Maskaradea antolatzeko proposamena egin deuskue aurten, eta pentsau genduan

Zuberoako lagunak batzuk be etorri ziran eta harrituta gelditu ziran. Hain harrituta, ze datorren ekainean hara joateko gonbitea egin deuskue. Bai, bai, Maskaradea Zuberoan geuk egitera". Zamudioko Maskaradea be oso arrakastatsua izatea espero dabe antolatzailerek. "Konfiantza handia dogu Zamudioko herrian, eta Txorierrin. Jentetza etorriko dala uste dogu, eta pozik lotuko dirala".

Halanda be, Txorierrin Maskarada bat egiten dan lehen aldia ez dala aitatu deuskue. "Urdirarbekoek orain dala ia 40 urte inguru egin eban Larrabetzun. Baina hau hemengo talde batek egingo dauan lehen aldia izango da, eta uste dogu urte-etan gogoratuko dala Zamudion Maskarada bat egin zala".

*"Barrikadak ipiniko
dira goizean; ofizioak
antzeztuko dira
arratsaldean"*

ANTZERKIA

ALADDIN
Teatro Gorakada
(txotxongiloak, euskaraz)
3 urtetik aurrera
Maiatzak 4, 17:00etan,
Prezioa: 6 €

SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Centros kalak, 1 (elizarren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

BFA DFB

sarreraren salmenta
www.aikori.com
tiketak

SARRAREN BIKEREN DENTZAK
TARATZULAN
Elkarretan jarri eta bikoiztu
orain bertan!

Indarra elkartasunean dago

Hogeita bost urte bete dira gure eskualdeko udalek batu eta Txorierriko Mankomunitatea osatzea erabaki zutenetik. Hogeita bost urte, herritarrei hainbat zerbitzu era mankomunatu batean eskaintzen eta denborak aurrera egin ahala sortzen diren premia berriei erantzuna ematen. Mankomunitateak bost presidente eduki ditu urte hauetan eta haiekin errepasatu dugu bere ibilbidea.



LUIS RAMÓN ÁLVAREZ
2003-2007

Beti pentsatu izan dut Txorierriko herritarrek ez dutela behar beste ezagutzen eurak bizi diren udalerriek osatzen duten Mankomunitatea, nahiz eta Mankomunitateari esker jasotzen dituzten zerbitzuak, udalek euren kontura eskainita baino merkeago eta kalitate handiagoak izan. Zentzu horretan eta herri txiki bateko alkatea izan naizen heinean, jakin badakit Txorierriko Mankomunitatea osatzen duten udal txikiek zailtasun handiz eskainiko lituzkete hainbat

zerbitzu. Lezamako kasuan, adibidez, pentsaezina izango litzateke gazte arloko teknikari bat izatea, familia-hezitzaile bat, psikologo bat eta gizarte-laguntzaile bat.

Nire ustetan, eskaera handiena eduki duten zerbitzuak pertsonen ongizateari lotuta egon direnak izan dira beti: gizarte zerbitzuetatik eskaintzen direnak eta Egaz Txorierritik eskaintakoak, enplegu arloan zein prestakuntza arloan. Beste mota batzuetako zerbitzuak ere ez ditugu ahaztu behar: zabor bilketa, argiteria publikoa, euskara, berdintasuna, animalia abandonatuak batzeko zerbitzua...

LANDER AIARZA
2011-...

Benetako une latzak bizi ditugunak. Krisialdiak sektore guztietan eduki du eragina, eta zelan ez, administrazioan ere bai, jakina. Ezin dugu ahaztu krisialdi hau batez ere ekonomikoa dela eta, beraz, eragin zuzena duela udalek dauzkaten zergetan, tasetan, diru-bilketan... Baina, nahiz eta egoera horrelakoa izan, nik gauza bat azpimarratu nahiko nuke: Mankomunitateko zerbitzu guztiak inolako murrizketarik gabe mantendu direla.

Testuinguru honetan, Gizarte Ekintza sailetik kudeatzen diren zerbitzuak dira herritarrek gehien eskatzen dutenak. Premia handia daukaten familiei mota desberdinetako laguntzak ematen zaizkie, esate baterako, elikagaiak zer jan ez daukatenei; papilak, pixoihalak... ume txikiak daukatenei; garbiketarako produktuak, egoera ekonomiko larrian daudenei... Etxeko argia, ura, mantentzea, alokairua... ordaintzen ere laguntzen diegu. Aipatutako zerbitzuak indartzea ez legoke txarto, baina beste gauza bat azpimarratu nahiko



nuke: 2013. urtean, eskaera ofiziala egin duten guztiei eman diegu erantzuna.

Etorkizuna itxaropentsu ikusten dut. Aurrera egin behar dugu. Erakunde desberdinen arteko elkarlana behar-beharrezkoa da gaur egungo egoeratik irtete-

ko. Denok batera lan eginez aterako gara. Mankomunitateko etorkizunari dagokionez, hura ere ondo ikusten dut. Hogeita bost urte bete ditugu eta urte hauetan gauza bat ikasi dugu: indarra elkartasunean dagoela.



GORKA CARRO

2007-2011



Mankomunitatera ailegatu nintzenean erakunde sendo batekin egin nuen topo. Ikusten zen aurreko legealdietan egindako lana eta emandako urratsak garrantzitsuak eta zuzenak izan zirela. Dena dela, gero eta zerbitzu edo programa berri gehiago emateko beharrezana ikusten genuen Mankomunitatetik. Adibide bezala aipa dezaket, ni Mankomunitateburu ibili nintzen sasoiari, kirol eta aisia esparruan euskararen presentzia bultzatu genuela. Era berean, industriguneetako hondakinen biltzea haien beharrezanetara moldatu genuen eta, argiteri publikoari dagokionez, lehen pausuak ematen hasi ginen, haren mantentzeaz aparte, zerbitzua bere osotasunean eskaintzeko. Behargintza Txorierriko estatutuak ere moldatu genituen, erakunde hark eskuduntza gehiago izan zitzaizkion, helburua tokiko garapena zela. Tresna hau oso garrantzitsua da enprekin lan bateratu bat egiteko; horren haritik ez dezagun ahaztu Txorierri dela Euskadi mailan enpresa gehien dituen eskualdea. Enpresekiko harremanak sendotu egin ditugu eta haiek eskatutako zerbitzuei ere eman diegu erantzuna, prestakuntzan, berrikuntzan...

JUAN MIGUEL ATXUTEGI

1989-1999

Zergatik Mankomunitatea osatu? Bada, hura sortu aurretik, zerbitzu batzuk udalek eurek eskaintzen zituzten, eta gainera, udal batetik bestera modu desberdinean eta baliabide gutxiarekin. Hori, adibidez, euskara arloarekin gertatzen zen. Eskolak emateko lokalak ez ziren oso egokiak eta ofizialtasun falta zegoen. Arazo hori Txorierriko udal euskaltegiarekin konpondu zen. Antzeko zerbait gertatzen zen gizarte ongizatearekin ere bai. Ez zegoen udal arteko koordinaziorik zerbitzua eskaintzeko orduan, eta elkargune bat sortu behar izan genuen, eta arlo horretarako administrari bat jarri.

Bestalde, bazeuden zerbitzu batzuk udaletatik eskaintzen zirenak, eta gero modu mankomunatuan. Eta beste batzuk, Mankomunitatetik hasieratik ezarri zirenak. Esate baterako, ezinezkoa izango zatekeen EPA (Helduen Hezkuntza) udal bakoitzean antolatzea: lokalak, irakasleak eta gutxieneko ikasle kopurua lortzea, hain zuzen ere.



Nahiz eta hasieran baliabide urriak izan, azpimarratu nahiko nuke Mankomunitateari esker zerbitzuak modu berean ematen direla udalerrir guztietan, euren tamaina eta gaitasun ekonomikoa kontuan hartu barik.

Orain arte, udal zerbitzu batzuk mankomunatzen joan dira, baina zerbitzu bakar bat ere ez da bueltatu berriro ere udaletatik eskaintzera. Gainera, eratu zenetik hona, hasierako sei udalek osatzen dute Mankomunitatea.

MARIA INÉS DANOBEITIA

1999-2003

Nire agindupean martxan jarri ziren zerbitzuen artean, Behargintzaren sorrera da aipagarriena, ziur asko. Mankomunitatea kezkatuta zegoen sei udalerrietako langabezia eta pentsatu genuen modu zuzenean hartu behar genuela esku. Horretarako, zenbait jardura sustatu ziren: lan gizarteratze programak, enplegu pasiboa, enpresa berrien sorrera bultzatzeko politikak eta autoenplegurako politikak. Era berean, gogoratzen dut kale garbiketak zerbitzuaren kontratazioa Loiu, Sondika, Derio eta Zamudioko udaletarako adjudikatu zela; Lezama eta Larrabetzuko geroago mankomunatu zen.

Mankomunitateak eduki duen emakumezko presidente bakarra izan naiz. Eta gauzak asko aurreratu arren, pentsatu behar dugu 2000 urtean geundela, eta kanpoko lanaz gain, emakumeok etxeko ardurak ere bagenituela. Ardura handiarekin bizi nuen nire agintaldia. Kontuan hartu behar da ni ez nintzela alkatea, zinegotzia baizik. Horrek esan nahi du ez nengoela liberatuta eta, beraz, nire lan jardueratik kanpo egin behar nuen Mankomunitaterako behar. Horrela ibiltzea ez zela batere operatiboa ikusi nuen eta lehenengo presidenteordearengan delegatu behar izan nuen Mankomunitateburutza.



Itxaropena, borrokaren bidez

Maiatzaren Lehena izango da laster. Jaiegun arrunta baino ez da batzuentzat; aldarrikatzeko eguna da, ordea, kontzientzia handiagoa duten langileentzat. Aikor! aldizkariak abagune egokitzen jo du, LAB eta ELA sindikatuen Txorierriko ordezkariekin batzeko. Eskualdeko gehiengo sindikalak gaur egungo egoeraren berri eman digu.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Egoera ekonomikoa ez da batere ona eta bereziki larria da langileentzat: kalera-tzeak, murrizketak, soldata-jaitsierak... Sindikatuak ez dira batere baikorrak. "Politikariek diote egoera aldatzen ari dela, enplegua sortzen ari dela... Hori guztia gezurra da, baina, egia izango balitz ere, nolako enplegua dugu, ba? Enplegua oso prekariora da, ez dago kontratu finkorik, soldatak txikiagoak dira... Gaur egun, soldatak ez du bizimodu duina bermatzen", esan digu Iratxe Azkue LAB sindikatuaren Uribe Kosta, Uribe Butroe eta Txorierri eskualdeetako idazkariak. "Tunel batean gaude, baina guk ez dugu amaieran argirik ikusten", berretsi du Juan Antonio Trabudua ELA sindikatuaren Txorierriko ordezkariak.

Biek ordezkatzeko dute gehiengo sindikala eskualdean, eta biek daukate bulegoa Txorierri, Derion. Bizi dugun egoera txarraren aurrean, Gobernuak lan-erreforma bat jarri zuen martxan 2012an, baina, sindikatuen arabera, ez du horrek onuririk ekarri. "Erreformatik, besteak beste, lanpostu gutxiago eta soldata txikiagoak ekarri ditu. Gainera, handitu egin du pobrezia. Sindikatuok borrokatzen dugu horrelako gauzak ez gertatzeko, baina tamentez, batzuetan, kasu honetan gertatzen den moduan, guduak galdu egiten ditugu. Izan ere, Euskal Herriko biztanleen % 8 pobreak dira", dio Trabuduak.

LAB sindikatuaren ordezkaria iritzi berekoa da. "Prekarietatea erabat orokorra



da. Lan-baldintzak okerragoak dira. Fátima Ibañez Espainiako Lan ministroak aitortu du soldatak jaitsi egin direla Estatuan lan erreformaren ondorioz. Haren ustez, horregatik gara lehiakorragoak. Hori gezurra da, beti izango baitira beste herrialde batzuk Euskal Herrian baino merkeago ekoizteko gauza direnak. Lan-erreformari esker, guztiak dira bidezko ka-

leratzeak. Eta hori ez da erreforma oker bakarra izan: pentsioena edo hitzarmen kolektiboena ere egin dituzte".

Murrizketak

Illo hori jarraituz, Gobernuak murrizketei ekin die, gastu publikoa ahalik eta txikiena izateko. Sindikatuen ustez, murrizketak ere ez dira bide egokia egoerari

*Iratxe Azkue (LAB):
"Gaur egun egoera ez da ona: soldatak ez du bizimodu duina bermatzen"*

Juan Antonio Trabudua (ELA): "Tunel batean gaude, baina guk ez dugu amaieran argirik ikusten"

ELAk Bilbon egingo du ekitaldi nagusia; LABek, ordea, Derion egingo ditu martxa eta mitina



buelta emateko. ELA sindikatuaren ordezkariaren esanetan, "murrizketak ez dira behar-beharrezkoak". "Murrizketen bidez, langabezia eta desberdintasunak handitzea nahi dute. Gainera, soldatak eta gizarte-gastua txikiagoak dira. Kapitalak esaten du arazoa soldatak eta lanpostuak direla, baina ez da egia: soldata enplegua da, hezkuntza, pentsioak, osasuna..."

Azkueren iritziz, "badira eredu ezberdin bi, eta elkarren kontra jotzen dute: Gobernuarena neoliberala da, hau da, finantza botereetan oinarritutako ekonomia; gurea, aldiz, pertsonengan oinarritutakoa. Gure ustez, Ongizate-estatu izenekoa ez da inoiz existitu, baina egia da badirela borrokaren bidez lortutako lan-baldintzak, eskubideak, zerbitzu publikoak eta abar. Eta haiek guztiak desagerrarazi nahi

dituzte. Esaten dute ez dagoela dirurik, baina aurreko astean beste 1.500 milioi euro bideratu dituzte bankuetara. Dirua badago, baina txarto banandua".

Nahiz eta egoera txarra izan, sindikatuek itxaropena helarazi nahi diete langileei, borrokatzen badute. "Politikak bulztatu behar dira enplegu duina sortzeko, eta erosteko ahalmena handitzeko. Salatu behar dugu gutxi batzuek gero eta diru gehiago irabazten dutela, gehienok gero eta diru gutxiago dugin bitartean. Eta hori guztia lortzeko, langileok antolatu egin behar gara enpresetan, lanpostuetan, eta mobilizatu egin behar gara. Langileok ekintza kolektiboari eman behar diogu garrantzia, hau da, denok batera jardun behar dugu; bestela, ez du ezertarako balio. Borroka politikak sorra-

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

GALAISA Etengabeko ordutegia
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3, SONDIKA

IRATXO gozategia
larta pertsonalizatuak
trufak
helak
pastelak
pastelak

Mikel Zarate, 2 - 3. leihoa • SondiKA, 48150 • 94 465 89 19

LIBRERÍA SONDIKA LIBURUDENDA
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)



raziko ditu, langileok ezin dugu etsi”, dio Trabuduak. “Jakin nahiko nuke zenbat gizarte- eta lan-eskubide desagertu diren, krisiaren aitzakia aprobetxatuz. Haiek ez ditugu berreskuratuko, borrokatzen ez badugu”, aipatu du Azkuek.

Maiatzaren Lehena

Eta borrokatzeko aukera paregabea Maiatzaren Lehena da. ELA sindikatuak ez du ezer berezirik egingo eskualdean, eta Bilbon egingo ditu manifestazioa eta ekitaldia, *Kalera!* lelopean. LAB sindikatuak, ordea, Derion egingo ditu martxa eta mitina. “Langileok erabaki, Euskal Herriak erabaki dezan. Hauxe da gure leloa aurtan. LABek beti aldarrikatu du erabakitze eskubidea politika mailan, baina, zelan ez, baita lan mailan ere. Hau da, langileok erabaki behar ditugu lan-baldintzak, gizarte-eskubideak... Badakigu argazkiak oso garrantzitsuak direla Maiatzaren Le-

“Txorierri ez da irla bat”

Txorierri badaude 2.000 enpresa baino gehiago eta 14 industrigune. Eskualde honetan beste leku batzuetan bezain bortitza izan da krisia. LAB sindikatuaren arabera, 2011ko martxoan, 920 langabetu zeuden Txorierri, eta 2014ko martxoan, 1.243. “Horrek esan nahi du % 26 igo dela langabezia hiru urte hauetan, eta hori itzela da”, dio Iratxe Azkuek. “Era berean, pobrezia gero eta handiagoa da. Derion, esate baterako, gizarte-jantoki bat ireki berri dute eta, entzun dudanez, jende pilo bat joaten da hara egunero-egunero”.

ELA sindikatuak ere datu batzuk eman dizkigu. “2008ko martxoan 466 langabetu zeuden Txorierri; 2014an,

1.230, % 242 gehiago alegia. 2008an, kontratuen % 13 finkoak ziren; 2014an, aldiz, % 7. Langabe kopuruaren igoerarik handiena Derion izan da, 260 gehiago lau urte hauetan, hain zuzen ere. Datuak ikaragarriak dira”, adierazi digu Juan Antonio Trabuduak.

Testuinguru honetan ez da harriztekoa enpresa asko eta asko itxi izana. Beste batzuetan enplegua erregulatzeko espedienteak egin dira. “Iaz, 94 espediente egin ziren Txorierri, eta haiek ondorioak ekarri zizkien 1.167 langileri: kasu batzuetan, kaleratzeak; eta beste kasu batzuetan, ordu kopurua murriztea. Guztira, 213 kaleratze egon ziren espedienteen ondorioz, eta beste asko banakako kaleratzeak izan ziren, baina haiek

ezin ditugu zenbatu. Txorierri ez da uharte bat”, dio LAB-eko ordezkariak.

Gatazkak

Hainbat enpresatako langileek jarraitzen dute borrokan euren eskubideak babesteko. Txorierri baditugu enpresa handi biren lotutako gatazkak: Euskaltel eta Ibermática. Guztira, 1.000 langile dabilta protestaka. “Bietan, Kutxa-banken eskuetan dago akzioen gehien-go. Bitxia da, ezta? Kutxabank pribatizazio prozesuan dago eta ondorioak dakartza horrek. Euskaltelek 190 langile azpikontratatu nahi ditu, eta ELak greba mugagabea adierazi du; Ibermática hitzarmen kolektiboa dabil negoziatzen, eta murrizketak egin nahi ditu soldatetan eta langile kopuruan”, esan du ELA sindikatuaren Txorierriko bozeramaileak.

Nire Autoocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
 Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
 Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

MAS X MENOS

Janari-denda
Prezio paregabeak

Bestorrene, 3 DERIO
670 60 70 41

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabarri, 1 Ionja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com




ASADOR FUENTENE *berria*

"lur eta itsasoko baserria"

Gosariak
Bazkariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta



LEKUNBIZ AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)



94 452 23 79

www.asadorfuenteneberria.com



hena bezalako egun berezietan, eta argazki politagoa lortuko genuke hiriburu-
ren batean ekitaldi handi bat egingo ba-
genu. Baina gure esparru naturala eskual-
deak dira eta horregatik ospatzen dugu
bertan. Ibilbidea hasiko da Magefesan,
sinbologia handiko enpresa, eta ekitaldi
bat egingo dugu Herriko Plazan. Langi-
leei esan nahi diegu LAB borrokatzeko
prest dagoen sindikatua dela eta alterna-
tiba bat aurkeztzen diegula”.

Oso borroka garrantzitsua egin genuen
lehengo udan hitzarmenak mantentzeko,
eta, zorionez, oro har lortu egin genuen
helburua. Adibidez, merkataritza arloko
hitzarmena luzatu egin zen; epaitegietara
joan behar izan dugu beste batzuk man-
tentzeko eta epaileak gure alde egin du;
eta beste batzuk bertan behera gelditu
dira. Kasu horietan enpresak du ahalme-
na Espainiako hitzarmena aintzat hartze-
ko”, dio Azkuek.

tan ere azpimarratu behar dugu ekintza
kolektiboen garrantzia, enpresa handia
ala txikia izan”, esan digu ELA sindikatu-
aren Txorierriko ordezkariak.

Ekintza kolektiboaren haritik, azken
hilabeteotan bilerak egin dira Euskal He-
rriko hiri eta herrietan Eskubide Sozialen
Karta osatzeko. Hainbat talde eta elkarte-
rekin batera, sindikatu euskaldun handi
biek egin dute bat ekimenarekin. “Ala-
keta soziala, politikoa eta ekonomikoa
aldarrikatzen dugu, eta gutunak aldaketa
hori aurrera eramatea du helburu. Guk
nahi dugun Euskal Herria eraikitzeko tres-
na bat da. Interesgarria da batez ere he-
rrian sortu delako, hau da, herritarrek par-
te hartu eta sustatu dute. Prozesu sozial
bat da, herri ariketa zabala. Eta horregatik
izan da oso zaila, aniztasun handia dago-
elako. Izan ere, jende pilo bat jarri behar
gara ados. Baina hori dela-eta, aldi bere-
an oso aberatsa izan da. Gaur egun karta
idatzita dago eta hemendik aurrera aur-
keztu behar diegu erakunde publikoei
geure nahia adierazteko. Guk beti esaten
dugu badagoela alternatiba bat, baina
beti leporatzen digute ez dela ikusten
zein den alternatiba hori. Gutuna da
alternatiba”, azaldu du Iratxe Azkuek.



Maiatzaren Lehena egun bakar bat
da, baina borroka etengabea izan behar
da. Eta horretan dabilta sindikatuak;
esate baterako, hitzarmen kolektiboak
negoziatzen. Hitzarmenak 2013an geldi-
tu ziren bertan behera. “Denetarik dago.

“Sektoreko hitzarmenak ez daude on-
do, baina apurka-apurka hitzarmen ba-
tzuk sinatu ditugu. Gauzak ez daude ha-
sieran uste genuen bezain txarto. Lan-
gileek ez dituzte hitzarmenak berritu,
baina batzuk luzatu egin dira. Kasu hone-

harategia - urdaitegia
MIGUEL
ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA
Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK
Gutxi-ikusiak, orokorrean
Auzokoen komunitateak
Mantentzeko gutxi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko enpresen garbiketa
Baserriak
Zabon hileta
Besaide Plaza, 1 - B° Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

HARAGITEGIA
URDAITEGIA
IMAZ
MUNDIALDE ETORBIDEA 2
TEL/FNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
etortzeagaitik

EUSKAL ASTEA

Zamudio 2014



ÜSKARA DÜGÜ ÜSKALDÜNEN MINTZOA EUSKERA DOGU EUSKALDUNON BERBEA

maiatzak 6, martitzena

19:30: XV. KANTA IKASTAROA
ITSASO ARRIETA, Dorretxean

maiatzak 8, eguena

20:00: HITZALDIA, ROBERTO TANANTA,
Peruko Amazoniako indigena, euskalduna

maiatzak 9, barikua

19:00: PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS,
"Bizipoza" Kiroldegian

maiatzak 10, zapatua

ZUBEROAKO MASKARADA

SANTUTXUKO GAZTE DI DANTZARI TALDEA

12:00: Barrikadak herriko plazetan

17:00: Arratsaldeko ekitaldia (dantza,
antzerkia, kantua... eskola zaharretan)

maiatzak 11, domeka

9:00: "ZAMUDIO, ZURE HERRIA EZAGUTU"

XV. MENDI IBILALDIA, Plazatik hasita
Arroeta mendi taldeagaz batera antolatuta

12:00: PILOTA PARTIDUAK

Arbolantxa pilota eskolaren eskutik

17:30: URIBE BUTROEKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2014

Parke Teknologikoko "Barco" eraikinaren aretoan.




Herritarr

a: Gaizka Peñafiel



Erantzun ederra baino ederragoa txorierriarrek "Gure esku dago" kanpainari eman diotena. Hala, orain arte antolatu diren ekitaldi guztiak, hala nola Lezaman egin zen aurkezpen ekitaldi nagusia eta txori-martxa, erabat arrakastatsuak izan badira, ekainaren 8an egingo den giza katean ere txorierriar andana handi batek hartuko du parte. Giza kateak Durango eta Iruña lotuko ditu, 123 kilometro orotara, eta guri Uharte Arakilen



Ni Uharte
Arakilera joango
naiz ekainaren 8an

Erabakitzeko
eskubidea
dugulako

Herri bat
garelako

on garaia

kilometro bat betetzea dagokigu; 100. kilometroa hain zuzen ere. Antolatzaileek esan diguten moduan, gutxienez 400 lagun behar ziren kilometroa osatzeko, baina haiek espero zuten zifra bikoiztea. Erronka sobera bete dute. "Dagoeneko 940 lagunek eman dute izena, giza katean parte hartzeko. Ea 1.000 lagun izatera ailegatzen garen!". Beste erronka bat, beraz.

Txorieritik 18 edo 19 autobus abiatuko dira Uhartre Arakileria. Bitartean, hainbat ekintza antolatuko dira maiatzaren

zehar, faltatzen direnak anima daitezen giza kate erraldoian parte hartzera. Baita giza kateari begira motorrak berotzen hasteko ere. Maiatzaren 1ean, eguerdiko 12etatik aurrera, kamisetak ipiniko dira salgai Derioko Udaletzeko plazan, eta giza katean izena emateko aukera ere egongo da. Maiatzaren 4rako, irteera antolatu dute Bizkargi mendira eta parte-hartzaile guztiek "Gure esku dago" kanpainako kamiseta janzteko deia egin dute. Bestalde, Sukalki Eguna egingo da maiatzaren 10ean Lezaman, eta egun horretan ere Zamudion antzeztuko den Maskarada aprobetxatuz, kamisetak ipiniko dira salgai eta izena emateko aukera zabalduko da. Jaiek duten jendea batze-

ko ahalmena ere aprobetxatuko dute eta maiatzaren 17an postutxo bat ipiniko dute Derioko jaietan. Bertan ere kamisetak erosteko eta giza katean parte hartzeko aukera egongo da. Azkenik, maiatzaren 23an afaria egingo dute Sondikan, karaoke eta guzti.

"Antolakuntzatik esan behar dugu kanpainak oso erantzun ona eduki duela hasiera-hasieratik. Hala, beste herri batzuetan gertatu ez den bezala, herritarrek eta taldeek hasiera-hasieratik egin dute bat harekin, erreferente bihurtu gaituen lan aparta eginez. Herritarren garaia da. Mila esker denoi eta ongi etorri bero bat datozen egunotan izena emango duzuen guztiei".



BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN PROIEKTUAK

“Alderdi teknikoak ez ezik, kultura kooperatiboa ere barneratu ditut.”

Maddi Sanchez,
Lehen Hezkuntza,
4. maila.

PLANNING
TEAM
MARKETING
STRATEGY
FINANCIAL
ANALYSIS
OPERATIONS
MANAGEMENT
HUMAN RESOURCES
TECHNOLOGY
INNOVATION

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE • MAIATZAK 10
Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

DONOSTIALDEA • MAIATZAK 17
Larunbata, 10:30 / Orona Fundazioa

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI • MAIATZAK 10
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

BILBAO • MAIATZAK 17
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIALZA • MAIATZAK 10
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA • MAIATZAK 10
Larunbata, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA - Basque Culinary Center

DONOSTIA • MAIATZAK 24
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436
www.mondragon.edu/prest

Derio tropikala

Oso gau berezia antolatu dute barikurako. Horrezaz gainera, koadrilen arteko txapelketa egingo da, eta herri bazkaria egunez aldatu da

a: Aner Mentxaka

San Isidro jai-batzordeko helburua jai herrikoia antolatzea da eta azken urte bietan horretan ibili dira batzordeko kideak. Adierazi dutenez, arrakasta handia izan du aurreko urteetako programazioak, eta horregatik prestatu dute antzeko egitaraua aurtengo jaierarako. Ostegunean Zaindariaren Eguna izango da eta jai izango dute Derion. Besteak beste, umeei eta gazteei zuzendutako tailerrak, lehiaketak, puzgarriak eta zezen mekanikoa antolatu dituzte egun horretarako. Era berean, idi-probak eta gizon-probak egingo dira eta Xaiborren ikuskizuna egongo da.

Txupinazoa barikuan botako da, Tximintx euskara elkarteak antolatutako "Herria martxan, martxa herrian" ekitaldiaren ostean. Jubilatuen elkarteak kideak irakurriko dute pregoia. "Ho-geita hamar urte bete ditu elkarteak aurtan, eta, herriaren egunerokotasunean haien lana oso agerikoa izan ez arren, 600 bazkidetik gora dituen elkartea da. Euren arazoak, kezkak eta nahiak aurrera ateratzeko elkartzea eta antolatzea goraipatu nahi dugu". Trakaren ondoren, txitxi-burruntzia egingo da Herriko Plazan. Euro bat ordaindu beharko da eta Gure Señeak elkarteak emango diote batuko den dirua. Bestalde, gau berezia izango da barikukoa. "Derio tropikala izango da 22:00etatik aurrera eta txosnagunea guztiz girotuta egongo da. Okasiorako mozerrotuko gara: loredun lepoko-

Kontzertuak: Zizka Miska, Skakeitan, Glaukoma, Frantzeska eta Gatibu

ak, Hawaiiko alkandorak, lastozko txanok, gonatxoak, txankletak... Herriko gazte zein heldu guztiak kolorez jantzi eta kalea dantza egitera atera nahi ditugu. Beraz, mozerroa jantzeko deia egiten diegu herritar guztiei". Gaueko edari nagusia mojitoa izango da, bai horixe. Musika Zizka Mizka, Skakeitan eta Glaukoma taldeek eta Dj Makalak ipiniko dute.

Zapatuan, eskulangintza azoka egingo da goizean zein arratsaldean, eta herri kirolen erakustaldia ere egingo da. Lainomendi dantza taldeak dantzen agerraldia eskainiko du arratsaldean, eta aurreko urteetan jaietan egon ez den ekintza bat berreskuratuko da: kaleko antzerkia. Ikuskizun berezi bat izango da, antzerkia eta akrobazia uztartzen dituen. Fabe de Fuka elektrotxarangkak girotuko du iluntzeko pintxo-poteoa eta txosnagunean eszenatokian Frantzeska eta Gatibu taldeak eta Dj Bull arituko dira. Kontzertuei buruz aipatu beharra dago jotzeko aukera eskaintzen diela jai-batzordeak urtero herriko musikariei. Hala, Zizka Mizka taldeko kide batzuk Deriokoak dira, eta Frantzeska taldeko partaide bat, Geldokoa.

Kalitatea

Herri bazkaria domekan egingo da aurtan. "Hura zapatuan egiteak arazo bat ekartzen zigun, teknikariak 17:00ak aldera hasten zirelako soinu probak egiten, eta ezin genuen patxadaz bazkaldu". Gainera, aukera bi eskainiko dira bertan parte hartzeko. "Orain arte bezala, koadrila bakoi-tzak bere bazkaria presta dezake eta euro baten truke txosnagunean bazkaldu.

Edo sei euro ordainduta, nahi duenak plater bat sukalki jan dezake". Txartelak ohiko tabernetan jarriko dira salgai, eta maiatzaren 11 baino



Ondo pasa jaietan!!!




Derio
Zurekin Aurrera!

P'PEKES ZAPATADENDA

Sollube, 6 behe
48160 DERIO

94 404 40 47

 **kirolak**

dribbling sport

KIROL EKIPAMENDUAK
FUTBOLA - SASKIBALOA
ATLETISMOA - GIMNASIA
PSIKOMOTRIZITATEA - SAREAK
GARAIAKURIAK - DOMINAK
KIROL OROKORRA

AIZKORRI KALEA, 1
TELEFONOA 94 454 10 01
48160 - DERIO (Bizkaia)

Abelino Arraindegia



Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

X Kotixa Plaza, 2 - 4. D
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 27 19

Estudios 10 Ikastegia

Pakearen Plaza, 3 - behe
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 50 19 **X**



Jaietan be EUSKARA AHOAN!
Gozatu jaiak euskaraz!



Derio

Vulcanizados DERIO

Herriko plaza, 5 behe • 48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 94 454 00 21



MICHELIN
zerbitzu ofiziala



electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

*Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta*

Aizkorri Kalea, 1 • Tel: / Fax: 94 454 31 48 - 48160 DERIO (Bizkaia)



lehenago erosi beharko dira. "Iaz, 450 lagun batu ginen bazkaltzen eta hautsi egin nahi dugu marka hori". Arratsaldean, nagusiei zuzendutako briska txapelketa eta txitxarilloa egongo da, txokolatada eta jai-amaiera.

Jaiak herritik eta herritarrentzat antolatutako dituzte, herriko hainbat elkartetako kideren laguntzarekin. "Kalitate handiko ikuskizun eta kontzertuak izango ditugu, eta herritarrek jaietan parte hartzeko hainbat aukera izango dute". Aukera horietako bat aurten lehenengo aldiz egingo den Koadrilen arteko Txapelketa da. "Hamasei urtetik gorakoentzako txapelketa da. Hainbat abilezia-frogaz aparte, jaietan giroa sortzea ere baloratuko dugu. 300 eta 100 euroko sariak ditugu irabazleentzat".

Jai-guneari dagokionez, kokapena aurreko urteetako berbera izango da, baina oraingo honetan karpa handiagoa izango da, iaz apur bat txiki geratu zelako. Euria izanez gero, baliteke kaleko ekintzak pilotalekura, txosnagunera edo kiroldegira eramatera.

Maiatzaren 15etik 18ra, beraz, osagai guztiak ditugu beste behin San Isidro jai bikainez gozatu ahal izateko.

*Jotzeko aukera
eskaintzen die
Jai-batzordeak urtero
herriko musikariei*

*Jubilatuak elkarteko
kideek irakurriko
dute pregoia*



Jai-egitaraua

Maiatzak 15, eguna

- 11:00: Meza nagusia.
- 11:30: Marrazki lehiaketa, Herriko Plazan.
- 11:30-13:30: Ume eta gazteen ekintzak, txosnagunera eta Herriko Plazan.
- 16:00-19:00: Ume eta gazteen ekintzak, txosnagunera eta Herriko Plazan.
- 19:00: Xaibor diskofesta, Sollube kalean.
- 19:00: Idi-probak + gizon-probak, probalekuan.
- 20:00: Poteoa.

Maiatzak 16, barikua

- 19:00: "Herria martxan, martxa herrian", Herriko Plazan.
- Ostea, pregoia eta traka.
- 21:00: Txitxi-burruntzia, Herriko Plazan.
- 21:30: Txosnagunera igotzeko kalejira, Herriko Plazatik.
- 22:00: "Derio tropikal" jaia, txosnagunera: Zizka Mizka, Skakeitan, Glaukoma eta Dj Makala.

Maiatzak 17, zapatua

- 11:00: Kalejira.
- 11:30-14:30: Eskulangintza azoka, Sollube kalean.
- 11:30: Umeen jolasak, txosnagunera.
- 12:00: Herri kirolen erakustaldia, Herriko Plazan.
- 17:00-22:00: Eskulangintza azoka, Sollube kalean.
- 18:00: Euskal dantzak, Herriko Plazan.
- 19:00: Kaleko antzerkia, Bakearen plazan.
- 19:00: Pintxo-potea + Elektrotxaranga.
- 22:00: Kontzertuak, txosnagunera (Frantzeska, Gatibu eta Dj Bull).

Maiatzak 18, domeka

- 11:00: Kalejira.
- 11:00-14:30: Elikagai azoka, Sollube kalean.
- 15:00: Herri bazkaria, txosnagunera: Sukalkia.
- 17:30: Lau t'erdiko Bizkaiko Txapelketa, pilotalekuan.
- 18:30: Briska txapelketako sariak banatzea, txosnagunera.
- 19:00: Txitxarilloa, txosnagunera.
- 20:30: Txokolatada, txosnagunera.
- 21:00: Jai-amaiera, txosnagunera.

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
Urbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Espezialitate guztiak zentro bakar batean
-Aurrekontua doan
-Especialitatea: umeak

Aislamientos Derio

Tabikeak
Pladurrezko sabaiak eta apalategiak
Sabai erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa

Aurtza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com

HORTZ - KLINIKA
Jasone Azurmendi Garai
Pakearen Plaza, 1 - 1º A
DERIO
Telefona: 944 543 705



Lainomendi^{ren}

dantza erakustaldia

Maiatzaren 17an
arrastiko 18:00etan
Derioko plazan

ondo pasa jaietan !!



INBISA

SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

Bide garbiketa | Hondakinak biltzea eta garraiatzea | Ur eta estolda-sareak zaintzea eta mantentzea | Hiri tresneria mantentzea eta zaintzea | Lorezaintza zerbitzua | Eraikinak eta lokalak barrutik garbitzea | Hondartzak garbitzea | Garbiguneak kudeatzea eta mantentzea | Lurzoruak deskontaminatzea | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

INBISA Derio Enpresa-zentroa
Astintze, 6A - 1. solairua. 48160 DERIO
www.inbisaserviciosymedioambiente.com
Tel. 94 424 38 34



Liliak

Loradenda

*Apaingarri bereziak Gabonetarako
Lore-komposizioak*

Erdiko kalea, 2
48160-DERIO
94 454 12 23
Facebook: liliak loradenda



OPTICA MODERNA

Erdiko kalea, 4
48160 Derio
Tel.: 94 454 37 99

SUGOI

TABERNA

11:00etatik aurrera zabalik



GARAGARDOEN MUNDUA

Goiko kalea, 2 - 48160 Derio - **94 454 16 07**

Arantza Amondarain Lasa

Ginekologoa

Txarriren etorbidea, 5-4
413. bulegoa
48160 Derio

Txarriren etorbidea, 5-4
94 454 84 98
a.amondarain@txarrirenetorbidea.com

Albaitaritza

HENAR ORTUONDO

ALBAITARIA



Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkola)

LARRIALDIAK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abandutua: 1815

“Dibertsitatea aberasgarria dela irakatsi behar diogu gizarteari”

VICTORIA PALOMO ETA MARIA ISABEL PICADO | AprendeTEA elkarte

Derioko Kultur Birika urdinez argiztatu zen apirilaren 2an. Hori Autismoaz Gogoeta Egiteko Nazioarteko Eguna izan zen, eta egun horretan ere AprendeTEA elkarte aurkeztu zen jendaurrean. Victoria Palomo elkartearen presidentea da; eta Maria Isabel Picado, idazkaria. Egitasmoa illusio handiz jarri dute martxan eta haren berri eman digute.

a: Monika Nadal

AprendeTEA autismoa edo Asperger duten umeen familiei zuzendutako elkarte da.

Elkarrekin zein gurasook gure umeak aurrera ateratzen batzen ditugu indarrak: eskolatzeko-prozesuan lagunduz, unibertsitatera joan ahal direnekin lan eginez, lana topatzen lagunduz, etxebizitza... Hau da, gizarteratzen laguntzen diegu. Gurasook koterapeutak izango gara bizitza osoan zehar, eta askotan ikusten dugu ez dakigula zelan egin aurre egunerokotasunean sortzen diren egoerei; ez dugula gure umeekin lan egiten duten terapeuten heziketa; eta ez dakigula eurak erabiltzen duten lengoaia. Elkartearen helburuetariko bat hutsune hori betetzea da, eta gurasooi falta zaigun prestakuntza eman. Horretarako, ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak... antolatuko ditugu.

Beste helburu bat aisialdia famillian ematea da.

Elkarrekin umeak asteburuetan hartzeko aukera ematen digute, guk atsedena hartzeko eta gainontzeko seme-alabei denbora eskaini ahal izateko. Eskertzekoa da, baina guk gure seme-alaba guztiekin nahi dugu aisialdia, aisialdi egokitu bat



izan. Gure familia horrelakoa delako, eta horrela atera behar dugulako aurrera. Burua apurtu behar da horretarako, gauzak ondo antolatu... baina egin daiteke. Gainera, gurasoentzat oso mesedegarria da antzeko arazoak dituzten beste guraso batzuekin egotea, baliabideak badaude eta lan egiten bada, zoriontsu izan ahal dela ikustea. Familiak harremanetan ego-teak indartsuago egiten gaitu, ez dugula lotsa eduki behar ohartarazten gaitu, harrotasuna baizik. Ezberdinak gara, baina esperientzia aberasgarria da.

Ulertzen ez zaituztela sentitzen duzue?

Bai. Gure umeek ez daramate minus-balioasuna aurpegian, baina kasuaren arabera, badituzte portaerak ohikoak ez direnak. Hala, hitz egin beharrean oihu txikiak egiten dituzte; jarrera errepikakorrak dituzte; sentikortasun handia diote zaratari, argiei, autoen klaxonei, sirenei; edo ez dute hitz egiten, edo oso berri-tsua dira... Mundua eraso handi bat bezala hartzen dute, eta gehiago ezin dute-nean, ahal duten moduan erantzuten dute. Horrek arbuioa sortzen du jendearengan eta askotan goitik begiratzen dizute: "Hori mizke hazitako umea da, nahi duena egiten du". Eta bestalde, gurasoak

ere bagoaz gure bizitza sozialari pixkanaka-pixkanaka uko egiten. Jatetxe batera joaten bagara, ez dakigulako zer istilu sortuko duten; senideren baten etxera joaten bagara, ez dutelako jakingo gaituzteko umeekin jolasten eta, ziur asko, zerbait apurtuko dutelako...

Hitz gogorra da arbuioa.

Are gehiago, Asperger duten ume askok *bulling*-a pairatzen dute eskolan. Ume hauek iseka guztien helburu dira, ez dituztelako beren ikaskideen keinuak eta jarrerak ulertzen, interesatzen zaienari buruz asko dakitenez, askojakintzat har ditzaketelako gainontzekoek, edo irakasleari ere zuzendu ahal diotelako... Gainera, ume hauek ez dute gertatzen zaiena kontatzeko beharrik, eta, beraz, ez dute

ezer esango pairatzen duten erasoari buruz. Oso inportantea da irakasleak adi egotea, zoritxarreko amaierarik ez egotea, Salamancan joan den hilabetean gertatu zen moduan. Asperger zuen nerabe batek bere buruaz beste egin zuen.

Horregatik da inportantea gizartea sentsibilizatzea, elkartearen eginkizuna ere badena.

Dibertsitate funtzionalari lotuta dau-den arbuioa eta ulertezintasuna ezjakintasunagatik sortzen dira. Dibertsitatea ona eta aberasgarria dela irakatsi behar diogu gizarteari, gure onena atera eta pertsona hobeak egiten gaituelako. Era berean, hitzak zaintzea ere ondo legoke. "Hori autista dela" esan beharrean, konnotazio negatiboa dena, "Hori autismoa duen pertsona bat da" esatea. Munduan bizi izateko modu berezi bat da, eta egu-nero borrokatzen dute aurrera egiteko.

Autismo elkartearen Espainiako Federazioak adierazpen bat egin zuen apirilaren 2ren haritik.

Han, eta gaur egungo egoera ekonomikoa kontuan hartuta, autismoa duten pertsonen langile moduan dituzten bertuteak batu zituzten. Besteak beste, oso pertsona fidagarriak dira, oso literalak direnez ez dutelako gezurra ulertzen; ondo moldatzen dira errutinara; asko dakite espezializatuta dauden arloari buruz; oso onak dira datuak sartzeko, muntaketa-kateetan, liburutegietan lanean...



ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OIHAR HILERRIAK
Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabia
48160 Derio, Bizkaiak
T: 94 454 02 93 - Fax: 94 454 50 63

KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

Planeten behaketa

Eguzki sistemako zenbait planeta teleskopioz behatzeko saioa antolatu dugu maiatzaren 8rako, eguenerako. Saioa Derioko Kultur Birikaren atzealdean dagoen aparkalekuan egingo dugu, 20:30ean hasita. Jon Legarreta fisikari doktore derioztarrak, EHUko irakasle eta Zientzia Planetarioak ikerketa-taldeko kide denak, gidatuko du ekitaldia (<http://www.ajax.ehu.es>).

Saioa hasteko, Jupiterri eta haren ilargiei begira jarriko gara, ilundu eta

berehala eguzkitik oso hurbil izango dugulako, konjuntziorantz doakigu-eta. Gero, Marten ipiniko dugu arreta, gure ilargitik ekialdera topatuko duguna, eta azkenik, Saturnora zuzenduko ditugu begiak, bere eratzun ikusgarriak mires-tenko. Saioaren zati nagusian ilargi "lurtarra" ere izango dugu ikusgai, baina hura ikusteko, nahikoa dira prismatikoak. Beraz, etxean prismatikorik edukiz gero, ez ahaztu saiora ekar-zen. Bestalde, teleskopiorik badauka-zue, hura ere ekarri falta barik, jakina!

Eta etxeko lanak jartzen jarraituz: ordenagailu eramangarria daukazu-enok instalatu Stellarium (www.stellarium.org) edo Celestia (<http://sourceforge.net/projects/celestia>) programak eta ekarri ordenagailuak saiora. Izan ere, oso lagungarriak izango zaizkigu behatzen dugun guztia bere testuinguruan kokatzen. Adibidez, zergatik ematen du ia-ia lerro beretik igarotzen direla planeta guztiak?

Gure jakin-mina eta indarrak piztuta mantentzeko, txokolatada egingo dugu saioak dirauen bitartean. Eta eguraldi txar-rragatik saioa bertan behera utzi beharko bage-nu, maiatzaren 12an saia-tuko ginateke berriz, ordu eta leku berean. Beraz, utzi libre egun hori zuen agen-dan.



INFORMAZIOA:

Telefona:

635 75 35 95

E-mail:

txorierri.berbalaguna@gmail.com

Bloga:

www.aikor.com/txokoa/berbalagun

Antolatzaileak:

TOTOAN TEEF

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea



BIZKAIA IRRATIA Txorierri

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

Atal honek berbalaguneko kideek euskaraz idaztea du helburu, nahi dutenari buruz eta modu errazean

Emakumeek ez dakite animaliei jatekoa ematen

t: Mikel

Seme txiki bat daukat eta asko gustatzen zaizkio ipuinak. Joan den hilabetean Madrilera joan ginen eta ahaztu egin zitzaigun poltsan ipuinak sartzea. Beraz, Madrilera heldu ginenean ipuin bat erosi genuen liburu-denda batean.

Animaliei buruzko ipuina zen eta animalien figurak ere bazekartzan. Figurak plastikozkoak ziren eta zati bi zeuzkaten: burua eta gorputza. Animalia bakoitzaren burua eta gorputza batu behar ziren eta umearentzat joko dibertigarria zela pentsatu genuen. Horregatik erosi genuen. Baina sorpresa hartu genuen ipuina irakurtzen hasi ginenean.

Animaliak baserri batean zeuden eta burua txarto jarrita zeukaten. Hau da, behiak oiloaren burua zeukan, txakurrak katuarena, zaldiak txerriarena... Zergatik? Baserritarraren emazteak jatekoa txarto eman zielako. Behiari oiloaren jatekoa eman zion, txakurrari katuarena... Azkenean, arazoa baserritarrak konpondu zuen. Abere bakoitzari bere jatekoa eman zion.

Ez zitzaigun ipuina gustatu emakumea tuntun bat bezala agertzen zelako. Gizona, berriz, azkarra zen. Gure ustez, txarto dago umei ideia horiek adieraztea. Akatsak guztiok egiten ditugu, emakumeek zein gizonek. Eta guztiok konpondu ahal ditugu. Benetako berdintasuna lortu nahi badugu, ideia horiek botatzek ez du laguntzen. Semeari ez diogu ipuina irakurri. Bera animalien irudiekin jolasten da.



1. Sinonimoak idatzi:

Heldu:
Zatia:
Haridura:
Azkarra:

2. Testuaren ulermena:

Nolakoa da idazlearen semea?
Zergatik zeukaten animaliek burua txarto jarrita?
Zergatik ez zitzaion idazleari ipuina gustatu?
Zein da desberdintasuna animalien eta abereen artean?

3. Azaldu berba honen esanahia:

Akatsa:

ERANTZUNAK:
1. Aliegatu; atala; ustekabea; argia
2. Txikia da; baserritarraren emazteak jatekoa txarto eman zielako; emakumea tuntun bat bezala agertzen zelako; abereak etxeak dira, gortakak, ez basatiak.
3. Txarto egiten dena.

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagoiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK

Rafael Garcia Tejero

Oiz Kalea, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

T: 94 406 08 08
Mobila: 607 406 613

Txorierri HMQ AEGON

Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodríguez Mella

Mitxine 6, behea - 48150 - Sondika (getziaren surrentan)
T: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885 - www.caballero.com

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolinean jokatu, etorri zaituz Trippya, Deriora

Behoko Kalea Bejo
DERIO

HAUR-MODA
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

t o k a k

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorena 5, Beheko 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Euskaltzaindiaren webgunea, sakelako telefonoan eskuragarri

Euskararen Akademiak bere webgunea moldatu du, atal erabilienak sakelako telefonoan eskura izateko. Hala, Hiztegi Batua, Orotariko Euskal Hiztegia eta Euskal Onomastikaren Datutegia webgunearen bertsio arruntan ez ezik, Smartphone eta iPhone motako telefonoetarako egokitutako moldean ere kontsultatu ahaliko dira hemendik aurrera. Eskuko telefonotik webgune osoa ikusteko aukera ere ematen da. Lana Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkariaren garatu da, Akademiaren Informazio eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) batzordearen gidaritzapean. Webgunea sakelako telefonoan ikusteko, ohiko helbidea idatzi beharko da: www.euskaltzaindia.net.

“Euskaltzaindiak garbi dauka gaur egun gizartearekiko harremanetarako ezinbestekoa dela informazio- eta komunikazio-teknologia erabiltzea. Azken urteotan informazio-teknologiaren erabiltzaileek noiznahi eta nonahi edukiak eskura izatea eskatzen dute gero eta gehiago”, esan du Andoni Sagarna Akademiaren Informazio eta Komunikazioaren Teknologia batzordearen arduradunak. “Euskaltzaindiak erabiltzaile horiei beren tresna mugikorren bitartez webguneko edukiak kontsultatzeko aukera eman nahiz, tresna mugikorretarako bertsio berria kaleratzea erabaki du”.

Egokitutako formatuan kontsulta daitezkeen hiru arloak urtean bisita gehien dituztenak dira. Hala, Hiztegi Batuak 924.355 bisita eduki zituen iaz; 508.672 bisita, Orotariko Euskal Hiztegiak; eta 1.139.265 bisita, Euskal Onomastikaren Datutegiak.

Hiztegi Batuak hitzen forma estandarrak biltzen ditu, “hiztegi ortografikoa” da. Euskaraz idazterakoan sortu izan den hainbat zalantzarri erantzuna ematera dator, hala nola

normatiboa. Haren xedea garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea biltzea da. Menderik mende eta euskalkietan zehar euskaldunak nolako hizkuntzaz baliatu diren ahalik eta osokien eta zehatzen azaltzeko helburua du hiztegi honek. 2013an, OEHren hirugarren argitaraldi elektronikoa aurkeztu zuen Euskaltzaindiak.


Azkenik, Euskal Onomastikaren Datutegian Euskaltzaindiaren Onomastika ba-



beste hizkuntza batzuetan jatorria duten nazioarteko hitzen formak (webgune...), nazioartekoak izan ez arren erabilera zabala dutenenak (txupete), hainbat herrialdetako biztanleak adierazten dituzten hitzenak (jubatar, etab.), eta arazo konplexuagoak izan ditzaketen forma berrienak (immunoeskasia).

Bestalde, Orotariko Euskal Hiztegia obra deskribatzailea da, eta ez arauemailea, ez

tzordearen lanak biltzen dira. Lanok lau multzo nagusitan banatzen dira: deitura edo abizenak (Agirre, Etxebarria,...); ponte izenak (Eneko, Leire, Miren,...); leku-izenak, eta honetan era askotakoak: probintziak, eskualdeak, herriak, mendiak, ibaiak; eta exonimia, hots, Euskal Herritik kanpoko leku-izenak, eta honetan kontinenteak, estatuak, munduko hiriburuak, hiriak, herriak...



Euskalduntzen eta alfabetatzen metodoak

Berrogei urte ez dira ezer



t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Badirudi euskal kulturak natura imitatzeko duela. Naturan haziak desagertu egin behar du gari berria erne dadin. Era horretara jokatzeko gero, belaunaldi berria beti abiatzen da zerotik. Baina kulturaren arteko diegu zor hurrengokoa.

Euskararen historiari jotzen dudanean, multzo handi bat aurkitzen dugu: batean, neu lakoak gaude; hau da, kontzientzia hartu baino lehenago ginenak euskaldun, hots, euskaldun zahar. Bigarren multzoan, euskaldun berriak ditugu, erabaki dutenak erdaldunen erkidegoko izanik euskarako taldera igarotzea.

Orain berrogei urteko "Irakasle Talde Batek" geure hogeitak urteekin, euskaltzaletu ahala metodogintzari eta hiztegi-gintzari oratu genion Bilbo Handi hartan. Orduan sortu genituen -1972, 1973, 1974an- EUSKALDUNTZEN I, II eta III liburuak erdaldunentzat, baita ALFABETATZEN metodoa ere, euskaldun zirenentzat. 100.000 aletik gora saldu genituen ezerezeko denboran. Horretarako, ia batean bilakatu ginen irakasle eta testugile, gehienbat ikasbide autodidaktez baliaturik.

Gaztetasunak eman ohi duen baikortasuna lagun, Dimako Indiebetin -hor goizaldeko laurak aldera- erabaki genuen EUSKALDUNTZEN metodoa sortzea, ezen ordura arte ez baikenuen erabili Patxi Altunaren EUSKARA HIRE LAGUNA metodoa baino.

Geroztik, oso panorama desberdinean bizi gara. Gaur eguneko euskal mundua aberatsa bezain konplexua da; orain 40 urte ezin imajina genezakeena.

Hori horrela, beste 40 urterako euskal plangintza eraiki behar da, 2054.era heldu artekoa; independentzia ere euskararen iraupenerako oinarritzko baliabidez hartuz. Azken batean, 40 urte ez ditun ezer!



lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515



Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak



94 455 56 19 Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiketa ikastaroak
Aisialdirako landak - Apopilo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalien heziketa

Telefona:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 83 • 48196 LEZAMA





KIMA
Landarak
LANDARE APAINGARRIA

Gaitolza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

Etxeko sukaldaritza

Berdela, piper
txorizero saltsan

Maite Lekerika

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 2 berdel handi (600-700 gramokoak)
- 8 piper sikuren mamina (ur apur baten egosiak eta txinotik pasau)
- Kipula handi bat
- 4 berakatz atal
- Pipermin-erdia
- Limoi baten zukua
- Arrain salda apur bat
- Orioa eta gatza

Prestetako errea:

Kipulea, berakatzak eta pipermina orio eta gatz apur baten erregosiko doguz. Piperren

mamina eta salda gehitu eta egosiko doguz, pure fin bat egin arte. Berdelak garbitu eta zabalduko doguz. Labako azpil baten ipiniko doguz eta gatz apur bat, limoi-ura eta orio apur bat botako deutsegu. Laba berora sartuko doguz eta han 8-10 minutu inguru eukiko doguz. Labatik atera eta txorizero saltsagaz tapauko doguz. Labara sartu eta han beste 2-3 minutu izango doguz. Mahaira aterako doguz.



Udabarriko arroza

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 250 g arroz
- 50 g brokoli
- Piper gorri bat eta piper berde bat
- Porru bat
- Kalabazin bat
- Piperbeltz zuria
- 50 g gurin
- Oliba orioa eta gatza
- Kipula bat eta berakatz bat
- Dezilitro bat ardao zuri
- Litro bat salda
- 30 g Parmako gaztai arraspau

Prestetako errea:

Kazuela baten orioa eta salda apur bat ipiniko doguz. Kipulea eta berakatzak txikituko doguz eta kazuelara be botako doguz. Egiten diran bitartean, piperrak, porrua eta kalabazina txikitu eta zartagin baten sueztituko doguz. Gatza eta piperbeltz zuria botako doguz eta barazkiak ia eginda dagozanean brokolia gehituko dogu. Bestalde, kipulea eta berakatzak daukaguzan kazuelara arroza botako dogu. Gatza eta saldea be botako doguz, erango dogu pixkanaka-pixkanaka, eta saldea lurruntzen doan heinean, gehiago gehituko dogu. Arroza 18 minutuan eukiko dogu egiten. Sua amatau eta gaztaia, gurina eta barazkiak botako doguz. Gura izanez gero, ardao zuri-zurrusta bat be bota daikugu. Erango dogu eta hiruzpalau minutu itxiko dogu jalgiten.

FRUTAK BARAZKIAK
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel!

Gaztelumendi, 3 - behe | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84


GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea
Emiliano

Menu berriak zabalduak • Eguzki menua eta karta
Eliza erakusleko platerak • Jantzeriak eta ebentzak
Itxialdi zabalduak • Jantziak zabalduak

R.º Gornietza, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

Pelukeria Estetika

94 455 81 44
Anguleri 2, behe Larrabetzu-Bizkaia



Zer irakurri?

Euli-giroaren atzetik

Joserra (Derioko Liluraturia Taldea)

EULI-GIRO

Uxue Alberdi, Susa 2013

139 orrialdean:

- Bederatzi ipuin.
- Bederatzi istorio.
- Bederatzi kondaira.
- Bederatzi eleberri txiki.
- Bederatzi aitzakia Uxue Alberdiren literatura ezagutzeko.

Misterioz beterik, ustekabeen harra-paturik, ezusteak, durduzagarriak, ez ohizkoak agertzen zaizkigu kontu sorta honetako narrazioan, hori bai, xarmaz ondo babestuak, ondo jantziak.

Sekulako inbasio bat baserri batean; baserriko ohiturak hiriko bikote batentzat; herri-herri hirira joandako neskamearen



gorabeherak; Franz Kafkaren ukitua ipuin batean, Alfred Hitchcockarena beste batean; txarto egositako dilistengatik, suizidiotik zelan libratu; ikasleen egoitza batera eramaten gaitu beste batean; dibortziatuen arazoak dakarzkigu beste-an... eta abar, bederatzi osatu arte.

Uxue Alberdiren estiloa ezagutzeko primeran dago. Istorio bat irakurtzean gustukoa ez baduzu, hurrengo gertu daukazu. Uxue Alberdiren ipuinak fresku-raz kantatzen dizkigu, erritmo biziarekin.

Liburu hau irakurtzea merezi du. Eskatu zure liburutegian.

Uxue Alberdiren beste obrak:

- Aulki bat elurretan, < 2007.
- Aulki jokoa, 2009.
- Ezin dut, 2011.
- Marizikina naiz, 2012.
- Txikitzen zaretenean, 2013.
- Zure denboraren truke, 2013.

Altzari
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.

Zuretzko lanetan espezialistak

Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209

www.altzari.com
altzari@altzari.com

Luisena, 2 - Belako Elkartegia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

elekma

URRATZEAREN BAT DUTEN ETAKETESINA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISTAK ETA ETAKETESINA ELEKTRIKO TROKAK

lehenengo markak • Prezioak onak

BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tecnicari estibados, 25/3 NI • 48180 Iruia
T: 944 539 232
www.elekma.es

Peluteria
Estetika

94 455 81 44

Anguluri 2, beheko Larrabetzu-Bizkaia



Erakusketak

Sondika

- > Bernardo Parrazar Llanosen pinturak. Maiatzaren 5etik 29ra, Erakusketa Aretoan.

Derio

- > Udal tailerrak. Maiatzean zehar, Kultur Birikan.
- > Gimnasia erritmikoaren erakustaldia. Maiatzaren 31n, 18:00etan, kiroldegian.

Hitzaldiak

Sondika

- > Zaintza aringarriak. Maiatzaren 19an, 17:30ean, Kultur Etxean. Caritasek antolatua.

Derio

- > "Emakumea, kirol ekintza eta osasuna". Maiatzaren 30ean, 10:00etan, Kultur Birikan.

Larrabetzu

- > LOMCE. Maiatzaren 8an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean. Txinpasmendi guraso elkarteak antolatua.
- > Literaturaz berbetan: Gabriel Arestiren *Harri eta herri*. Maiatzaren 22an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikastaroak

Lezama

- > Risoterapia. Maiatzaren 23an eta 30ean, eta ekainaren 6an eta 13an, 19:00etan, kultur aretoan. Izena ematea, liburutegian.

Larrabetzu

- > Emakumeentzako esku pilota. Maiatzaren 6an, 16:00etan, pilotalekuan. Olarreta, Xaker eta Udalak antolatua.
- > Emakumeentzako barre tailerra. Maiatzaren 21n eta 28an eta ekainaren 4an eta 11n, 19:00etan, eskolako jantokian. Berdintasun batzordeak antolatua.

Ikuskizunak

Derio

- > *Las herederas del sol* antzezlan. Sutondoan elkartearen eskutik. Maiatzaren 3an eta 4an, 19:00etan, Gurea Aretoan.

Irteerak

Sondika

- > Tipi-tapa osasunez (Leioa-EHU). Maiatzaren 10ean. Izena ematea: maiatzaren 7ra arte, liburutegian. Goronda gane guraso elkarteak eta Udalak antolatua.

Lezama

- > Besaide. Maiatzaren 11n, 09:30ean, eskolan. Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Las Malloas. Maiatzaren 24an eta 25ean. Izena ematea: maiatzaren 5a baino lehen (gailurmt@outlook.com).

Zamudio

- > Bizkargi. Maiatzaren 4an, Arroeta mendi taldeak antolatua.
- > Ernio. Maiatzaren 18an, Arroeta mendi taldeak antolatua.

Jaiak

Txorierrri

- > San Isidro, maiatzaren 15ean. Larrabetzu: azoka, bazkaria, briska eta mus txapelketak...; Zamudio: idi-probak, bazkideentzako bazkaria... Lur-langileen elkarteak antolatua.

Lehiaketak

Derio

- > Emakumeen Briska Txapelketa. Maiatzaren 5tik 7ra, 17:00etan, Kultur Birikan. Sutondoan elkarteak antolatua.
- > Mihiluze txapelketaren finala. Maiatzaren 9an, 19:00etan, Kultur Birikan.
- > Futbol aretoa (triangeluarra). Maiatzaren 23an, 19:00etan, kiroldegian. Pozgarri taldeak antolatuta.
- > Txorierrri-Urbe Kostako finalak, aurrebenjamin mailan. Maiatzaren 31n, 11:00etan, kiroldegian. Arteaga taldeak antolatua.

Zamudio

- > Pilota partidak. Maiatzaren 3an, 16:00etan, frontoian. Arbolantxa Pilota Eskolak antolatua.
- > AISIA TEK + 1 herri lasterketa. Maiatzaren 18an, Teknologia Parkean. Izena ematea: maiatzaren 16a baino lehenago, udaletxean.
- > Slaloma. Maiatzaren 24an, Racing elkarteak antolatua.
- > Balkoi Apainduen lehiaketa. Maiatzaren 31n, Bidekoetxe parkean.

Musika

Larrabetzu

- > Musika eskolako ikasleen emanaldia. Maiatzaren 13an, 19:30ean, Anguleri kultur etxean.
- > Izar Argia abesbatzaren emanaldia. Maiatzaren 30ean, 19:30ean, Andra Mari elizan.
- > Bide ertzean. Maiatzaren 18an, 18:00etan, Hori Bai gaztetxean.



Zure oporralak Danerik Parajeren kontu!!!

Danerik Paraje saltokietan, maiatzaren 1etik ekainaren 30era egindako erosketekin bi pertsonentzako bidaia zozkatuko da. Derioko VIAJES ECUADOR BIDAIAK-en prezio berdintsua duen beste baten truke aldatu ahal izango da. Denda bakoitzak 10 €tik gorako salmenta bakoitzeko zigilubakarra jarriko du txarteletan. Zozketan parte hartu ahal izateko, txartel bakoitzak bi zigilu izan beharko ditu. Hauek lortu bezain laster, txartela Kultur Birikan dagoen kutxatilan utziko da. ZOZKETA eta SARI banaketa Derioko Kultur Birikan izango dira.

**Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako
Elkarte Profesionalak...**

**San Isidro jai alaiak opa dizkizue!
Gora Derio!
Gora derioztarrak!**



ESKANTZAK

UDABERRIA 2014

BELARRA MOZTEKO MAKINAK

299€
TIK AURRERA



MOTOZERRAK

199€
TIK AURRERA



HESIAK MOZTEKO MAKINA

199€
TIK AURRERA



Bakarrik topatuko dituzu

**STIHL MARKAN ADITUA
DEN ZURE DENDAN**

STIHL®

VIKING®



BANATZAILE PREMIUN
BAKARRA BIZKAIARAKO

agrojardín
Astikene

Astikene industrialdea, Berezi 23C
48160-Derio BIZKAIA
Tel.: 944 540 652 / Fax: 944 540 653
astikene@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com